

IRATI CRESPO MAIDER OLEAGA DIEGO SOTO EUSKAL ZINEMAREN IRIZAR SARIAREN EPAIMAHIA

IRENE ELORZA

Zinemara lagunekin joateko ohiko erri-tualetik ba omen du zerbaite epaimahai batetako kide izateak. Filma elkarrekin ikusi, aretotik atera eta taberna bat aukeratu, eseri eta iriztiak trukatzeko denbora hartzen dute zinemazaleek. Halaxe dabilitza Maider Oleaga, Irati Crespo eta Diego Soto 68. Zinemaldian, Zinemira saileko epaimahaiki-de baitira.

Epaimahaiko presidente Maider Oleaga zinemagileak honela azaltzen du esperientzia: "Egunero ikus-ten ditugun filmen inguruko sentsazio orokorrak komentatzen ditugu, tarte-ka gehiago sakonduz". Aitortu due-nez, nahiago du filmei buruz aurretek ez irakurri eta ahalik eta gutxien jakin.

Irati Crespo kritikari eta programatzailarentzat ere, garrantzitsua da ikuspegi ahalik eta orokorra eduki-zea. "Ni komisariotzatik nator, Elias Querejeta Zine Eskolan ikasten na-bil, eta zinemari begiratzean ikuspegi orokorra edukitza zein importantea eta demokratikoa den ikasi dut ber-tan; teknikoki fijatzen gara gauzeta-n, baina testuinguru sozio-politiko bat ere badaukagu eta horretan ere fi-jatzen zara, bakoitza bere subjeti-bitosunetik".

Diego Sotok, bestalde, gidoilaria den aldietik, arreta gehiago jartzen dio arlo horri: "Horregatik atsegin dut

Elkarren osagarri bilakatzen diren hiru begirada erne



JORGE FUENBUENA

Maider bezalako zuzendari batekin egotea, niri oharkabeen pasatzen za-izkidan kontuetaz ekarpenak egiten dizkidalako". Horixe da epaimahai-kide anitzen aberastasuna, Sotoren ustez, bat "iristen ez den lekura ai-legatzen" laguntzen diola besteak.

Anitzasun handiko saila dela azpi-marratu dute hirurek. "Oso film dife-

renteak daude: dokumentalak, fik-zioa... baina gero, beraien artean ere badaude formak eta formak, eta egi-teko modua", aipatu du Crespok. Aur-ten, Euskal Zinemaren Irizar sarirako hautagaiak Zinemaldiko hainbat sai-letan (Culinary Cinema, Sail Ofizia-la, Zuzendari Berriak, Zinemira) aurki daitezke aurten. "Aterkia handitu egin

da eta sekzio ezberdinako filmak egoteak are interesgarriagoa bihur-tzen du dena".

"Zinemaldi bakoitza desberdina da daukazun misioaren arabera", dio Sotok, "normalean Sail Ofizialekoak eta Perlak ikusten ditut, baina aurten beste ibilbide bat egin dut eta oso gustura nago".

Tres miradas complementarias

La experiencia cinematográfica de un jurado se parece mucho a la de cualquier cinéfilo que queda con amigos para ver una película y después acude a un bar cercano a comentarla e intercambiar pareceres. Maider Oleaga, Irati Crespo y Diego Soto conforman el Jurado Premio Irizar al Cine Vasco. Durante el Festival visionan una media de dos películas al día y aprovechan los tiempos muertos para hablar de las obras presentadas a competición. La presidenta del jurado, la directora Maider Oleaga, prefiere no tener información previa sobre las películas; eso le permite tener una mirada más abierta hacia las obras a concurso. Irati Crespo, a su vez, trata de tener una visión global sobre cada film, sin limitarse al aspecto técnico de las creaciones y poniendo atención sobre todo en el contexto general de la obra.

Irizar

Mundu hobea eraikitzen
laguntzen dugu

#ByYourSide

www.irizar.com